

***ERABAKIA, UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Dekanotzarena, Medikuntza, Odontologia, Fisioterapia eta Erizaintzako graduatarako, GOI-MAILAKO TITULUAK HOMOLOGATU aurreko gaitasun probari lotutako eta nagusiki akademikoak eta prozedurazkoak diren gai jakin batzuk erregulatzeko dena.***

Medikuntza eta Erizaintza Fakultateak, aintzat harturik azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretua, abenduaren 3ko ECD/2654/2015 Agindua, urriaren 18ko 889/2022 Errege Dekretua eta UPV/EHUko 2023-24 graduako irakaskuntzetarako indarrean dagoen Rudeaketa Akademikoko Araudia, prozedura orokor hau erabiliko du Medikuntza, Odontologia, Fisioterapia eta Erizaintzan aritzeko gaitzen duten atzerriko goi-mailako tituluen homologazio eskaeretan:

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak gabeziak aurki ditzake atzerriko tituluek egiaztatutako prestakuntzan, homologatu nahi den Espainiako titulua lortzeko eskatzen den prestakuntzari dagokionez. Gerta daiteke gabeziaren munta ez izatea homologazioa ukatzeko nahikoa eta, homologazioa lortzeko, interesdunak prestakuntza betekizun gehigarri batzuk gainditu behar izatea. Hori gertatzen denean, eta interesdunak eskatzen duenean betekizun horiek akreditatzea UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean, arau hauek beteko dira:

**LEHENENGOA.- PRESTAKUNTZA BETEKIZUN OSAGARRIAK GAINDITZEKO PROBA MOTAK**

Homologatu gabeko atzerriko unibertsitate ikasketak dituzten ikasleak UPV/EHUko graduatan onartzeko eta UPV/EHUko prestakuntza betekizun osagarriak egiteko (eskumena duen ministerioak atzerriko goi-mailako tituluen homologazioa baldintzatzen duten betekizunak) erregelamenduaren 7. artikulua araberan (Gobernu Kontseiluak 2023ko apirilaren 18an onartua, eta 2023ko maiatzaren 3ko EHAAn argitaratua), homologatu beharreko ikasketez arduratzen den ikastegiak ezarriko ditu egin beharreko probak. Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen kasuan, prestakuntza betekizun osagarriak akreditatuko dira **SOIL-SOILIK** proba teoriko edo teoriko-praktiko bat edo gehiago gaindituta, den-denak idatziak.

**BIGARRENA.- DEIALDIAK**

Medikuntza eta Erizaintza Fakultateak, legeak ezarritakoaren arabera, **DEIALDI BAT EGINGO DU URTERO eta/edo IKASTURTERO. Gainera, TEORIKOA EZ DEN ATAL PRAKTIKOA GAINDITZEA ESKATZEN DUTEN GAIETAN, BI PROBA EGINGO DIRA URTEAN** (PROBA TEORIKOA ETA PROBA PRAKTIKOA). PROBA TEORIKOA BAZTERTZAILEA IZANGO DENEZ, NAHITAEZ GAINDITU BEHARKO DA IRAKASGAIAREN PROBA PRAKTIKOA EGITEKO.

Probak egingo dira aurretik zehaztuko diren egunetan; zehazki, Fakultatearen webgunean probak hasi baino 30 egun lehenago gutxienez argitaratuko diren egunetan. Deialdietan zehaztuko dira probekin lotutako prozedurazko gaiak, epeak,

kalifikazioak, etab.

## **HIRUGARRENA.- PLAZA KOPURUA**

Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Dekanotzak, kontuan izanik bere irakats gaitasuna, eskura dituen baliabideak eta irakasgai-gabeziaren izaera, gehieneko ikasle kopuru bat ezarri ahal izango du gaitasun probak egiteko, ikasturte akademiko bakoitzean, titulazio eta/edo titulazio baten gai bakoitzean, prestakuntza betekizun osagarriak gainditzeari begira. Kopuru hori webgunean argitaratuko da, eskabideak aurkezteko epea ireki aurretik.

## **LAUGARRENA.- EPAIMAHAIKIDEAK ETA PROBAK**

- A) Proben epaimahaikideak izango dira UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko bost irakasle, horietatik hiru gutxienez atxikita titulazio bakoitzeko ikasturte klinikoetan irakasgaiak ematen dituzten sailalara. Dekanoak izendatuko du epaimahaiburua, Fakultateko Batzarrak aukeratutako kideen artean. Epaimahaiak ondoz ondoko bi deialditan jardungo du, Dekanotzaren iritziz ezinbestekoak diren kasuetan izan ezik, eta epaimahaikideak beren irakats betebeharretatik salbuetsiko dira, epaimahai lanak beren jardueran eragiten dien heinean.
- B) Epaimahaikideak ez dira epaimahai lanetan arituko, eta izendatu dituen agintaritzari jakinaraziko diote, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako abstentzio egoeraren bat sortzen denean (2015eko urriaren 2ko BOE, 236. zk.). Era berean, ikasleek epaimahaikideak errefusatu ahal izango dituzte, egoera horietakoren batean, aipatutako legearen 24. artikulua araberaren.
- C) Behin eratuta, nahikoa izango da hiru kide titular edo ordezkoren bertaratzea Epaimahaiaren saioak baliozkotzat hartzeko, ezinbestekoa izanik epaimahaiburuaren partaidetza.
- D) Epaimahaiburuak beharrezko neurriak hartuko ditu ziurtatzeko idatziz eginiko ariketak zuzenduko direla ariketa egilea nor den jakin gabe.
- E) Epaimahaiak aholkularien laguntza izan ahalko du, egoki irizten dion ariketei dagozkien probetan.
- F) Proba prozesuaren edozein unetan, beren nortasuna egiaztatzeko eskatu ahal izango diete epaimahaikideek hautagaiei.
- G) Hautagaiei dei egingo zaie ariketa bakoitzerako deialdi bakar baten bidez, eta agertzen ez direnak probetatik kanpo geratuko dira, behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik.

## **BOSGARRENA.- GAITASUN PROBAK**

**PROBA TEORIKOAK:** gaitegia bat etorriko da interesdunak eskatutako gai bakoitzarekin, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean gradu bakoitzerako indarrean dagoen ikasketa planaren arabera, dagokion titulazioko Espainiako fakultate guztien artean ofizialki adostutako gaitegi bat dagoenean izan ezik, kasu horretan hori izango baita gaitegia.

**Medikuntza, Odontologia eta Fisioterapiako graduetan,** gai bakoitzaren proba izango da Epaimahaiak osatutako GALDETEGI bati erantzutea. 30 galdera izango ditu guztira, lau-bost erantzun posibleekin, eta erantzun bakarra izango da zuzena. Ikasleek zuzen erantzun beharko diete gutxienez gai edo gabezia bakoitzean proposatutako galdetegiaren galderen %70i, eta gutxienekoa izango da hori GAI kalifikazioa lortzeko gai edo gabezia. Oker erantzundako galderek ez dute punturik kenduko guztizko zenbaketatik, estatuko konferentzia batek beste formula bat ezartzen duen probetan izan ezik. Azterketak 30-45 minutu iraungo du gai edo gabezia bakoitzeko. Erreserba galdera batzuk sartu ahal izango dira, gerta litezkeen baliogabetze kasuetarako.

**Erizaintzako Graduaren** kasuan, proba teorikoak izango dira ikasturtean zehar matrikulatutako ikasleen proba berberak, eta gaien ezohiko deialdiaren datetan egingo dira.

**Odontologiako Graduaren,** gerta liteke probak, ebaluazioak eta datak baldintzatuta egotea, hainbat unibertsitatek aldi berean batera eta era adostuan egiteagatik edo, hala badagokio, odontologiako fakultateetako dekanoen edo arduradun akademikoen estatuko konferentzia batek adostuta egiteagatik. Gainerako graduetatik aparte deitu ahal izango dira.

**PROBA PRAKTIKOAK:** dagokion gaiaren proba teorikoa gainditzen duten hautagaiek proba praktikoa egingo dute, hala eskatzen duten irakasgaien eta ikasturtean zehar aukera hori eskaintzen duten gaien kasuan. Proba praktikoa hori idatzizkoa ere izango da.

## **SEIGARRENA.- KALIFIKAZIOAK**

Ebaluatzeko, kalifikatzeko, argitaratzeko eta berrikusteko prozedura izango da homologazio probei aplikatu beharreko araudi orokorraren arabera. Probak amaitzean, gehienez ere hogeit hamar egun baliaduneko epean, kalifikazio aktak bidaliko dizkio Epaimahaiak Fakultateko Dekanotzari, inskribatutako ikasle guztien zerrendarekin, "GAI", "EZ-GAI" edo "EZ AURKEZTUA" kalifikazioekin. Prozesua amaituta, probak gainditu dituzten ikasleen egiaztagiria helaraziko dio Fakultateko Dekanotzak Hezkuntza eta Kultura Ministerioko Idazkaritza Nagusi Teknikoari.

Erabaki hau eta erabakitik eta kalifikazio epaimahaien jardunetik sortutako administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako kasuetan eta moduan (2015/10/02ko BOE, 236).

## DEKANOA

### ARAUTEGI APLIKAGARRIA

889/2022 Errege Dekretua, urriaren 18koa, atzerriko hezkuntza sistemetako unibertsitate irakaskuntzak homologatzeko, baliokidetzat jotzeko eta baliozkotzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen, eta aurreko antolamendu akademikoetako unibertsitate titulu ofizialek Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparruan duten baliokidetasuna ezartzeko prozedura arautzen duena.

ECD/2654/2015 Agindua, abenduaren 3koa, azaroaren 21eko 967/2014 Errege Dekretua garatzeko eta aplikatzeko arauak ematen dituen, goi-mailako atzerriko tituluak homologatzeko eta baliokidetzat jotzeko prozedurei dagokienez (BOE 2005/12/11).

967/2014 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, unibertsitateko titulu eta maila akademiko ofizialarekin homologatzeko eta baliokidetzat jotzeko eta goi-mailako atzerriko ikasketak baliozkotzeko baldintzak eta prozedura ezartzen dituen, bai eta arkitekto, ingeniari, lizentziatu, arkitekto tekniko, ingeniari tekniko eta diplomatu titulu ofizialak goi-mailako hezkuntzako kualifikazioen Espainiako esparruko mailekin bat datozen zehazteko prozedura ere (BOE 2014/11/22).